

Bertsolaritza eskola ordutan Mendialdeko ikastetxe guztietan

Bertsozale Elkarteko irakaslea, Oihane Perea, klasea ematera etorri da bi astez behin, Mendialdeko 3 ikastetxeetara. 90 haur eta gaztek landu dute bertsolaritza aurtan.

Haur eta gazteek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte, azkena Maiatzaren 23an lehen

GU ERE BERTSOLARI programa "bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.

IKASTETXEAK

Kanpezu: Iberalo ikastola

Kanpezu BHI

Maeztu: Maeztu Herri eskola

Gu ere bertsotan



Mendialdeko bertso familia koxkorra

MENDIALDEKO bertso-eskola

GAZTE eta **HELDUEN** taldea

Kanpezuko Kultur etxean

(16 urtez gorakoak)

Asteartean 19:30-20:30

HAURREN TALDEA:

8-12 urteko haurrak

Kanpezuko Kultur Etxean

asteartetan, 18:30-19:30

(datorren ikasturtean aldaketak egon daitezke)



Gabonetako bertso abentura BARRIAN

Azken urteotan ohikoa denez, 2013ko Urtarrilaren 2, 3 eta 4ean egin genuen Lautadako bertso barnetegia Barrian. 23 haur eta inguruko begiralerik martxosoenak elkartu ginen neguko oporren azken txanpa bertsoaren epeletan pasatzeko asmoz. Mendialdetik ere partaideak izan ziren eta primeran pasa zuten, jolastu, kantatu eta barre egiteko tartetik ez zen falta izan. Bertsoak, musika eta jolasak tartekatuz 3 egun polit eta atsegin pasatzeko aukera izan genuen. Hurrengorako badakizue...

ANIMATU, ederto pasako duzue ta!



Mendialdeko ikastetxeen topaketa Kanpezuko kultur etxean



Arabako mendialdeko ikastetxe guztietako 5. eta 6. mailako haurrek eta bigarren hezkuntzako ikasleek bertso-festa mundiala eskaini zuten Maiatzaren 23an, Kanpezuko Kultur etxean. Txalo zaparrada eta animoen artean txikienek bertso asmakizunak luzatu zituzten, DBHko lehen zikloko ikasleek bertso-hop erritmorra jarri zuten entzuleria, eta DBHko bigarren zikloko ikasleek mozorro eta dantzaz lagunduta ikuskizun fresko eta paregabea eskaini zuten amaitzeko. Umorea eta irribarreak izan ziren protagonista nagusiak, eta bertsoan, euskaraz eman eta jasoz, ederki gozatu zuten bertaratutako ikasle irakasle guztiek. Kurtso osoan landutako pastel goxoari ginda jarri geniola esan dezakegu, Zorionak emanaldiagatik eta urte osoan zehar eginiko lanagatik!!!

Mendialdeko I. eskolartekoa

Maiatzaren 23an ikastetxeen topaketaren baitan izan genuen Arabako Mendialdeko haurren bat-bateko lehendabiziko emanaldia ere.

Mendialdeko bertso-eskolan asteartero biltzen diren Kanpezuko Ibon Antia eta Estitxu Bazterra eta Maeztuko Eneko Martinez jende aurrean inprobisatzera ausartu ziren, eta baita Kanpezuko Eneko Muñoz ere. Laurek ere lan bikaina egin zuten, horren txikiak izateko daukaten meritua eta ausardia azpimarratu zuten bertaratutako guztiek.

Ekainaren 1ean izan zen Arabako eskolarteko topaketa eta festa egunean Mendialdeko taldea izan genuen bat-batean lehendabiziko aldiz. Aurrera goaz eta ausardiarik ez zaigu falta. Zorionak bertso-eskolari harrobia lantzeko egindako lanagatik. Aupa zuek!



Bertsoak Mendialdean herriz herri

2012/12/28 MAEZTU

bertso pilota: Bertsolariak eta pilotariak

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso
Frontoian.

2012/9/1 KANPEZU

Bertso-bazkaria: lagun artekoa

Ruben Sanchez eta Julen Zulaika. Plazan.

2012/10/6 URIZAHARRA

Bertso-poteoa: plaza librea

Irati Anda eta Izar Mendiguren. Txosnan.

2013/3/2 KANPEZU

Bertso-korrika: bertso-saioa

Ane Labaka, Fredi Paia, Iñigo Izagirre eta Julen Zulaika K-18 tabernan

2013/4/6 KANPEZU

Bertso-tabern: Bertso-saio musikatua

Jagoba Apaolaza, Ander Solozabal eta musikariak, Ibernalo aterpetzeko tabernan

Gure eskualdeko txoko askotara heldu da bertsolarien ahotsa azken urte hauetan, era askotako publikoak dastatu ahal izan du leku ezberdinetan egin diren formatu ezberdinetako emanaldiak tarteko.

Bertsolaritza eta bertsozaletasuna gure eskualdean leku propioa hartzen ari dira, jende askoren ahaleginari esker euskara esparruak berreskuratzen ari den bezala. Etorkizunari itxaropentsu begiratzeko moduan gaude.

ESKERRIK ASKO

JUAN BAUTISTA GAMIZEKOA

Sabando, 1696-Bolonia, 1773.

1696ko apirilaren zortzian Arabako ekialdeko Sabando herrixkan jaio zen Juan Bautista Gamiz. Handik hogeit bat urtera, baina, Jesusen Lagundiko kide bihurtzeko sorterrria utzi eta Valladolidera abiatu zen. Leku eta lanpostu ezberdinetan aritu zen 1720tik aurrera: Coruñan Josulagunen ikastetxeko sukaldari izan zen; handik Valladolidera itzuli eta San Inazio ikastetxeko diruzainaren laguntzaile izendatu zuten. 1728-1730 urte tartean, aitzitik, Euskal Herrira itzuli zen, Iruñeako La Anunciada ikastetxera, dirukontuen arduradun. Ikastetxe hartan igaro zuen bizitza, harik eta 1767an Espainiako Karlos III erregeak josulagunak kanporatu zituen arte. Cartagenan barrena Italiara jo behar izan zuen, beste hainbat kiderekin batera, Gamizek. 1773. urtean hil zen Boloniako Casa Lequio etxean.

Herri-kantuetatik hurbil zegoen Sabandoren lana, koplen eredura eginak, zenbaitetan irakurri edo, hobeto esanda, kantatzean, zer doinu jarraitu diosku autoreak. Jorratzen dituen gaien artean maitasuna da nagusi, tartean hitz-jokoak eta poesia dekoratiboa ere erabiltzen dituelarik. Gamizen idatziek balio handia daukate hizkuntzari dagokionez -garai hartako Arabako euskararen testigantza izan daitezkeelako- eta oso gaur egungoak ditugun sentimenduak ekartzen dizkigu gogora:

«Erderaz eztuzu nay / ene viotza / euzqueraz copla eguiten / eztut nic lotza / ycuco deugu / albadaygu eguin zerbait / nola beardegu. Gaizqui badoaz ere / orra euzqueraz / ifin naiz au eguiten / neure bildurraz / eguizu farre / gaizqui mintzacenbadut / lotzaric bague»



**Mendialdeko bertso-eskola
(Maeztu eta Kanpezu)
Kanpezuko kultur etxea
01110 KANPEZU**

**Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com**

www.arababertsozale.org

www.bertsozale.com

www.bertsoa.com



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

